

EGOSURFING

**Babestu zure historia¹****Helburuak:**

- Ea jabetzen garen gure bizitza pribatuak zenbateko interesa duen besteentzat.
- Ea konturatzen garen nor irits daitekeen guk partekatzen dugun informaziora.
- Ikas dezagun neurri batzuk hartzen, Interneten partekatutako informazioa babesteko.

Denbora: 20 min

Nola egin:

Azaldu zer den Egosurfiga, hots, interneten nor bere buruari buruzko informazioa bilatzea. Ikusiko dugu zer informazio publiko aurkitzen dugun guri edo senitartekoren bati buruz, eta, nahi izanez gero, gelatik kanpora erabiltzen saia gaitezke, ea egia den..

Dinamizatazaileak, labur-labur, egosurfiga-a zer den eta nola eta zergatik egiten den azalduko du (informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi ESIk egosurfigari buruz egindako bideoa). Interneten norberari buruzko bilaketa bat egitea da, ikusteko ea sarean publikoki zer dagoen gutaz.

Interneteko nabigatzaile bat ireki, bilatzaile batera joan (Google, Bing, DuckDuckGo, etab.) eta norberari buruzko bilaketa bat egin behar da (adibidez, komatxo bikoitzen artean izen-abizenak jarrita (“izen-abizenak”) eta herria edo probintzia edo antzeko zerbait). Zer aurkituko dugun? Argitalpen-mota bat baino gehiago, hala nola sare sozialetako profilak, kirol-ekitaldiak... Baliteke beste batzuek ere izen bera edukitzea, edo argazkiak, iruzkinak, etiketak eta abar.

Kontua da jabetzea zer informazio daukagun Interneten argitaratuta, eta nahi ez duguna ezabatu ahal izatea. Bestalde, ezer aurkitzen ez badugu, horrek ez du esan nahi, derrigor, ezin hobeak garelako pribatutasuna zaintzen; baliteke ez edukitzea argitalpen asko, edo ez erabili izatea bilaketarako termino egokiak.

I. eranskina: Nola erabili egosurfiga

¹ Internet Segura for Kids (IS4K). 2.0 Eskola Jardunaldien Programa “Zure informazioak asko balio du”. Egokitua